



Artedrama eta Le Petit Theatre de Pain konpainien arteko elkarlanetik sortu da *Errauntsak*tez Lana.

# Aizkorakadak

Kl'itika

**Antzerkia**

'Errauntsak'

**Konpainiak:** Artedrama, Le Petit Theatre de Pain, Dejabu.

**Zuzendaritza:** Ximun Fuchs.

**Aktoreak:** Ximun Fuchs, Ander Lipus, Manex Fuchs, Miren Gaztafiaga, Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo.

**tekoa:** Gazteszena aretoa (Donostia). **Eguna:** Azaroak 6.

**Agus Perez**

**A**izkorakadaindartsu batekin hasten da Errauteak, baina kolpe gogor hori ez da ezer gero etorriko denarekin konparatuta. Laster batean, Odeiren heriotzaren berri tzango dute haren lagunek, telefonoz, eta horregauza asko mugiaraziko dituhaietariko bakoitzaren baltan, hildakoa gogoia tzean garai bateko laguntasuna, gazte-urteak eta ilusio galduak azaleratuko direlako.

Hego Euskal Herriko Artedrama eta lpar Euskal Herriko Le Petit Theatre de Pain konpainien arteko elkarlana aspaldiko abe-**rassarriena izaten ari da arte eszenikoen panoraman, eta horren adierazle bikaina Errauntsak** dugu. Nik, pertsonalki, miraritzat jotzen dut talde bien sorrera eta biek elkar ezagutu tzana, balnakontnanean behardugumi~~" rariak ez direla zerutik jausten, eta haienatzetik beti daudela gutxi batzuen borondate adoretsua eta urte askoan landutako pres-

takuntza pertsonal itzela.

Talde bien estilo garaikide eta aurreratuaren ildotik, agertokian ikusitakoak ez du zerikusirik tzan ohiko lanetan ikusten denarekin eta, mozkorraldi arteko agur-jal basatihurairudikatze-ko, trebezia handiz uztartu dira aitorpenkutunak, borrokapsarteak, amorruzko eztanda kolektiboak eta lagun arteko kantaldiak. Izan ere, kantak dira lan honen osagai nagusietako bat, eta halen artean naturaltasun berberarekin entzun ditugu eremu industrialetan loratutako punk abestlak eta Zuberoako larre idilikoetara garamatzaten doinu ederrak.

Taula gainean, bestetik, ezer gutxi egon da aizkora eta hilkutxaz aparte, baina biluztasun eszeniko horrek lehen planora ekarri ditu antzezenen indarra eta taldearen barne kohesioa, eta zeharo aproposa suertatu da ospakizun neunigabe horretan izandako poz 000 tristura uneak irudikatze-ko.

Nolanahi ere, nik bereziki eskertu dut emankizuna erreberentziagutxiko giroan bilduta etorri tzana, ortodoxiari batere jaramonik egin gabe, Sabino Arana, Etxahun Irurieta Fragarri-barneren hiloblak ikusleen artean deskubrituz, eta orgasmoaz, Iparraldeko etxalde hustuez 000-ta batek daki zertaz berba eginez. Antzezle bakoitza bere herriko euskaikian aritu da, kontzesiorik gabe, eta han-hemenka gaztelaniatzko zein frantsesezko esaldi batzuk ere tartekatu dira. Azken finean, lagun baten erraustezemonian egon gara, eta horreJa hitz egiten dugu barneko amorratio guztlak aizkorakadaka kanporatu behar ditugunean.